

Patxi Ezkiaga bere ispiluaren aurrean

Xabier Monasterio egina

Galdera.- Inork inoiz zure biografiarik idatziko balu, bertan zer-nolako datuak agertzea gustatuko litzaizuke?

Patxi Ezkiaga.- Legorretan jaio nintzen. Estimatzen nuen maixu baten gonbidapena jarraituz salletarren ildotik abiatu nintzen. Prozesu luze baten ondorioz Jainko pertsonal eta misteriotsu baten deiari amore eman eta hezkuntzaren munduan murgilduta bizitzea erabaki nuen. Cambridge eta Oxfordeko urteek ireki zidaten literaturaren leiho magikoa eta eman mundu horretan benturatzeko oinarritzko heziketa. Deustuko unibertsitatean burututako Historia ikasketek areagotu egin zidaten etxetik, Pariseko herbesteko Jaurlaritzaren artxibuetatik eta zenbait lagunengandik jasotako Euskal Herriarekiko pertenezia zentzua. Literaturan bokazioz eta serbitzuz jarraitzen dut, sarri irakurtzeko eta idazteko beharra sentitzen dudalako eta naizena eman didan Herri honi naizena itzuli beharrean nagoelako.

G.- 1984. urtean, lehendabiziko poema liburua idatzi zenuenean, «mugagabeko bidetik / ertzagabeko itsasora / aparrik gabeko hondartzara / bustidura gabeko uhai-netara / hondar gabeko eremuetara» omen zindoazen eta beldur zinela aitortzen zenuen. Zeren beldur zara bizitzan? Eta olerkigintzan?

P. E.- Bizitzan hariaren etenaldien beldur naiz, zentzuaren aingura historiko eta eskatologikoari lotzen nauen kate gozoaren urradurari izua diot.

Olerkigintzan ezer gutxiri diot beldur. Zoriontsuenekoan zorionez idazten dut, etsipenduenekoan, etsipenez. Agorraldia datorkidakenean desertuaren eta ausentziaren poesia dastatzeko gauza izatea espero dut.

G.- Urte hartan bertan eta liburu berean Paradisu Galduren bila abiatu zinen. Zertan bereizten dira fededun baten eta fedegabe baten Paradisuak? Ala Paradisua bat bera da denontzat?

P. E.- Paradisua zorionerako harreman pertsonaletan eihoturiko bizimodua da. Adan eta Ebaren alegorian, eskutik hartuta, barneko biluztasunaren beldurrik gabe, bizitzaren egunsentian nahiz arrastirian paseiatzeko ahalbidea eta erabakia.

Fededuna naizenez, sinisterra eman zait, Hodeian nahiz Suan, barneneko ele-rako hirugarren pertsona dagoela. Genesis bezala. Besterik ez. Ez dago magia-rik.

G.- Beste behin Utopiarantz joan zinen zure Faduran barrena. Utopiaren Erreinua eta Euskal Herria lurralde mugakideak dira, ezta?

P. E.- Utopia helmugarako azken esperantza da, eta bulkada. Egunez egun, orduz ordu, minutuz minutu itoerazten gaituzten gure Herri honen muga gero eta estuagoak luzatu nahi nituzke eta zabaldu, inoiz joka behar ez diezaguten IZAN aditzaren lehenaldiko hirugarren pertsona plurala.

G.- Hizkuntzarekiko kezka —zuk «hizkuntzaganako kezka» esango zenuke seguru asko— konstante nabaria da zure olerkietan. Gogora dezagun, kasurako, harako «Zuri / NONGO, NONDIK eta NORA /



gabeko horri» hura. Poeta handi batek euskara NORANAHIKOA nahi zuela esan zigun aspaldi duela. Hizkuntzaren NORABIDEA bilatze horretan, olerkariak ba al du ezer eskaintzerik eta epaitzerik ala dena prosaren esku utzi beharra dago?

P. E.- Uste dut araudia bezainbat sentazioen mundua dela hizkuntza. Akorde klasikoa bezain garrantzikoa dela atonia eta sinetsi ere sinesten dut amaigabea dela musikalitatearen bilaketa. Nork uka diezaguke bete dezagun bidai horretan gure bagoia!

Beraz, hizkuntzaren musikalitatearekiko harremana da, beste zenbait fenomenoaren artean, poeta egiten nauena. Nire ustez zera honetan bait datza batez ere poeta eta nobelariaren arteko ezberdintasuna, olerkariak hizkuntzaren bizitzarako idazten duela eta munduaren hobekuntzarako nobelariak.

G.- «Beldur naiz» behin eta berriz esaten zenigun denbora hartan Heriotzaren Kolore Ezaz ihardun zenuen poema batean. Alabaina, geroztik zeure buruaren ispiuaren aurrean izaniko bakarrizketa haietan, hauxe adierazten zenuen: «Anbulantzia beltzetan / paseatzen dute heriotza / Donostiako kaleetan». Eta honela segitzen zenuen: «Eta horretarako / ez nuke hiltzerik nahi». Zein ote da heriotzaren egiazko kolorea?

P. E.- Heriotzak bizitzaren kolore bera du. Errealitate bat eta bera dira, hain antagonikoak eman arren. Poema horretan bizitza estilo baten irria adierazi nahi nuen, hurbiltasunean oinarriturikoa. Horregatik dut nahiago bidaiaren azken etaparako ere maite dudana eta nauenaren bizkar beroa, auto metalikoaren hoztasuna baino.

Zer esango nizuke!. Heriotzari eskaini dizkiodan poemak bizitzari buruzko erreflexioak direla batipat.

G.- «Stevie Wonder dakarkit / gaueko Euskadi Irratiak / pianoa, saxoa, tanburinak / ta kitarra akustikoa / zintzilik Andia kaleko / zazpigarren solairuko zeruan». Stevie Wonder, Leonard Cohen, Lluís Llach, Lili Marleen, bluesak, ... Horiek eta gehiago ere aipatzen dituzu zeure liburuetan. Dirudienez, zuretzat musikak eta olerkiak sorburu eta helburu berberak dituzte. Zure eritzian, zer asmatu zuen antzinako gizakiak lehenago: kantua ala olerkia?

P. E.- Poesia, bere hastapenetan, seguraski zentzurik gabeko monosilaboen errepikapena izango zen, dantza-pauso errepikatuen erritmoan. Beraz, zenbat eta gehiago sakontzen dugun hizkuntza poetikoan orduan eta bilutsagoak beharko lukete bere irudikeriaren kontzeptualtasuna eta bisualitateak, orduan eta aberatsagoak entzumenarekin loturiko atezu-sistema biszeralak. Zenbat eta gehiago murgiltzen garen hizkuntza poetikoan orduan eta modu musikalek menperatuagoa dago. Baina, erlazio dialektikoan bizi arren, betirako elkarrekin loturik daudela uste dut.

G.- Musikaz ari garenez gero, lehengo batean gaueko Euskadi Irrati horretan entzun nuen doinu goxo bat ekarriko dut gogora. Honela zioen: «Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka». Eta oso gaiztoa naizenez gero, buelta emango diot koplaxoari eta hauxe esango: «Ezkiaga, Golding etorri duk hitaz galdezka». Zer esan zenioten elkarri?

P. E.- Inoiz ez dut jakin Lizardik zer erantzun zion Rimbauden izenean galdezka etorri zitzaionari. Zarauztarrak ez zuen erantzuteko aukerarik izan.

Poeta bai, bizi den bitartean halako galderarik egitea... Baina, bueno, gaiztakeriak aparte, lehenengo aldiz 1962-n Lord of the Flies aztertu nuenean berak esan zidana esango dizut, gero Free Fall, Pincher Martin, Rites of Passage, Darkness Visible, The Inheritors eta abar luzean errepikatu didana: Mugazia duk gure sustraiekiko eguneroko heriotza. Gaitza duk mugaziaren haragia zornetzen duen eztena. Ematen dutena baino askozaz bilutsagoak direnez, etzak aiantzi adjetiboaren jazkera berarekin ihardute-rakoan.

Gaia irakokitzeaz gain, belarrira xuxurlatu nahi didak estiloa. Ez haiz batere makala, Willian.

G.- Zure liburu baten kontrazalean esaten denez, mendizale amorratua eta naturaren miresle isila zara. Baina, mendi gailurrak maite dituen gizona izan arren, Madrilen lurraren sabeleraino sartu zinen, bertako metro geltoki ilunetatik poesia azaleratzeko. Zeru-lurrak eta goi-beheak berdindu beharrez zabiltzala esan liteke. Horretara neurtzen al duzu espazioa beti?

P. E.- Bai, baina ez beti horma mugiezin batzuren barruan. Unez uneko barne

egoerak adierazten dit nolako jokamol-detan koka dezakedan traszendentzia-inmanentzia erlazio dialektikoa. Beraz, espazioaren bi koordenadak berdinak izan arren, nire ikuspegia da etengabe aldatzen dena.

G.- Bukatzeko, galdera xume bezain bihurribat: mundua olerkigintzan ala olerkigintza munduan?

P. E.- Vattimok errelato haundietan buruz hitzegin digu. Mundua —orokorki hartuta— litzateke gure errelatorik nagusia. Norbaitek ezagutzen al du poesia-rik gabeko errelatorik? Bereiztezinak dira bata eta bestea.

A MODO DE SINTESIS

El poeta Patxi Ezkiaga, autor de cinco importantes obras en verso, nació en Legorreta y, siguiendo la invitación de uno de sus maestros, comenzó de joven un largo viaje en búsqueda de un Dios personal y misterioso. Sus años en las universidades de Oxford y Cambridge le abrieron la ventana mágica de la literatura y le dieron la formación esencial para adentrarse en el maravilloso mundo de las rimas. Años después, tras finalizar los estudios de Historia en la Universidad de Deusto, descubre su natural e inevitable pertenencia a la realidad del Pueblo Vasco e inicia una nueva singladura, en la que trata de aunar sus tres grandes pasiones: la búsqueda de su Dios personal, la identificación con el pasado y el presente de su pueblo y el ejercicio de su profesión vocacional de poeta.

Patxi Ezkiaga confiesa entender la poesía como el más puro de los intentos de percibir la musicalidad de la lengua, entendida ésta, a su vez, como expresión de la vida. Quizás por eso todos sus poemas sobre la muerte no son sino hermosas reflexiones sobre la vida. Escribe movido por la necesidad de contactar con la vida y el mundo —los dos relatos principales sobre los que el ser humano puede escribir— y de esa dualidad temática extrae la diferencia básica entre el narrador y el poeta: ésta contempla la lengua como un vehículo de expresión de vida, mientras que aquel la considera como un mero instrumento para lograr la perfección del mundo.